**Aldaketa fisikoak eta kimikoak- ariketak**

1. Erabili esaldi zati hauek, materiak izan dezakeen aldaketa mota bakoitzaren definizioa idazteko. Esaldi zati bakoitza behin baino gehiagotan erabil dezakezu.




a) Aldaketa fisikoa:

_____________________________________________________________.

b) Aldaketa kimikoa:

_____________________________________________________________.

2. Esan alkoholak kasu bakoitzean duen aldaketa fisikoa ala kimikoa den. Azaldu zergatik.







A.-Erre egiten da :

B.-Irakiten du :

LIVEWORKSHEETS

3. Esan eraldaketa hauetatik zeinek adierazten duen aldaketa fisikoa, eta zeinek, aldaketa kimikoa.

a) Zur zati bat txikitzea: aldaketa ______________________
b) Kandela bat piztea: aldaketa ______________________
c) Egurra erretzea: aldaketa ______________________
d) Giltza bat oxidatzea: aldaketa ______________________
e) Buztina modelatzea: aldaketa ______________________
f) Ura eta harea iragaztea: aldaketa ______________________
g) Arrautza bat frijitzea: aldaketa ______________________
h) Maionesa egitea: aldaketa ______________________
i) Bonbilla bat piztea: aldaketa ______________________
j) Iodoa sublimatzea: aldaketa ______________________
k) Ilargi eklipse bat: aldaketa ______________________
l) Ura irakitea: aldaketa ______________________
m) Fotosintesia: aldaketa ______________________
n) Lau urtaroen segida, Lurrak Eguzkiaren inguruan egiten duen itzuliaren ondorioa: aldaketa ______________________
o) Jantziak lehortzea: aldaketa ______________________
p) Pospolo bat erretzea: aldaketa ______________________
q) Goizetan ihintza sortzea: aldaketa ______________________

4. Substantzia batek, hala nola burdinak, hainbat aldaketa izan ditzake. Adierazi honako hauetatik zein diren aldaketa kimikoak.

a) Burdin zati batekin, giltza bat egin dugu: aldaketa ______________________
b) Burdin zati bat oxidatu da: aldaketa ______________________
c) Burdina berotu dugu, gori jartzen den arte: aldaketa ______________________
d) Burdina eta ikatza nahastu ditugu, altzairua egiteko: aldaketa __________________

5. Ura duen edalontzi batean, koilarakada bat azukre bota dugu. Gero, urari eragin diogu, azukrea erabat disolbatu arte. Ba al da hor inolako aldaketa kimikorik? Eman arrazoia.

LIVEWORKSHEETS